



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO MATERIALAREN ARDURADUNA

Euskadiko Futbol Federakundeak material-arduradun bat kontratatzeko hautaketa-prozesu bat hasiko du, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- Kirol-arropa eta biltegia zaintzea, garbitzea eta inbentariatzeaz arduratzea.
- Federazio-jardueretarako behar den kirol-materiala kontrolatzea, baldintza onenetan mantentzea eta, behar izanez gero, ordezkatzeko eskatu.
- Denboraldi bakoitzeko arroparen eta kirol-materialaren beharrak lantzea, urteko programazioan oinarrituta.
- Uraren logistika eta jarduera bakoitzerako behar diren elikagaiak kudeatzea, selekzioen denboraldiko kirol-programan (entrenamenduak, kontzentrazioak eta bidaiak) eta beste federazio-jarduera batzuetan oinarrituta.
- Kirol-materiala federazio-ibilgailuarekin jaso, biltegiratu eta banatzea.
- Entrenamenduetara, txapelketetara eta programatutako beste federazio-jarduera batzuetara joatea.
- Aldian behin Kirol Zuzendaritzarekin koordinatzea.

Betebeharrak:

Prestakuntza: Lanbide Heziketa eta B gidabaimena.

Hizkuntzak: elebiduna: Euskara eta Gaztelania. Beste hizkuntza batzuk ezagutzea positiboki baloratuko da.

Tresnak: Office, Excel, Word, Power Point, erabiltzaile maila.

Bestelakoak: Lanpostu edo antzeko eginkizunetan izandako esperientzia baloratuko da, bereziki Euskadiko kirol-klub edo erakundeetan izandakoa. Bidaiatzeko prest egotea.

Baldintzak:

Lanaldi erdiko kontratua, lanaldi osora luzatzeko aukerarekin.

Interesa duen edonork secretaria@euskadifutbol.eus helbidera Curriculum Vitae-a bidali beharko du, urriaren 30a baino lehen (igandea).

Hautatutako pertsonekin bakarrik jarriko gara harremanetan.